

## Prentsa-oharra

### ONAk eta IK4-TEKNIKERek bi hamarkadatik gorako lotura teknologikoa sendotu dute

- ▶ *ONAk eta IK4-TEKNIKERek mekatronikaren eta zehaztapen-ingeniaritzaren eremuetan, fabrikazio-teknologia aurreratueta eta gainazalen kimikan oinarritzen dute beren lankidetzaz*
- ▶ *Sarrera berri horrekin, 24 enpresak osatuko dute zentro teknologikoaren erakunde kolaboratzaileen taldea*

---

(Eibar, 2017eko otsailaren 1a).- ONA Electroerosión enpresa bizkaitarrak elektrohigadura-makinak fabrikatzen ditu Europar Batasunean, eta nabarmenetako bat da mundu-mailan. Bada, IK4-TEKNIKER zentro teknologikoaren erakunde kolaboratzaile gisa sartu da, bi erakundeen arteko hitzarmena sinatu ostean.

Hitzarmena gaur sinatu dute, zentro teknologikoaren egoitzan, Eibarren, Javier González ONAko zuzendari nagusiak eta Alejandro Bengoa IK4-TEKNIKEReko zuzendari nagusiak, eta azken urteetan mantendutako lotura teknologikoa denboran indartzeko eta sendotzeko xedea dauka.

Egun, Durangoko enpresak eta zentro teknologikoak ikerketa-proiektu teknologikoetan oinarritzen dute beren lankidetzaz, eta mekatronikaren eta zehaztapen-ingeniaritzaren eremuetan, fabrikazio-teknologia aurreratueta eta gainazalen kimikan daude kokatu ikerketa horiek. Zehazki, honelako gaiak jorratzen dituzte: makinaren funtzionalitatea handitzea, ultrasoinuek lagundutako elektrohigadura, EDM gas-fresaketarako gailuen garapena, dielektrikoen gehikuntza gehigarria eta fabrikazio gehigarria.

Hitzarmenaren xedeen artean, batez ere, estrategia teknologikoen lerrokadura dago. Horretarako, IK4-TEKNIKERek enpresari lagunduko dio bere I+G+b plan estrategikoa zehazteko orduan, eragile aditu gisa arituz, eta zentroko zuzendaritzarekiko eta bertako ikertzaile aipagarrienekiko elkarriketa erraztuz.

Era berean, zentro teknologikoaren erakunde kolaboratzaileek erreserbatuta dauzkaten zenbait eskubideri eta onurari heldu ahal izango dio ONAk. Ildo horretan, elektrohigadura-makinetan aditua den enpresak IK4-TEKNIKERen azpiegiturak erabili ahal izango ditu, lehentasunezko baldintzetan.

Hitzarmeneko beste puntu batzuk IK4-TEKNIKERen irudia erabiltzeari buruzkoak dira; izan ere, ONAk zentro teknologikoaren irudia erabiltzeko baimena edukiko du, ikusgarritasun-tresna gisa. Bestetik, hautagai izan ahalko da erakundeko nagusiak hautatzeko prozesuan, eta zentroak antolatutako prestakuntza-jardueretan, jardunaldietan eta ekitaldietan hartu ahal izango du parte.

Hitzartutako jarduerak egoki funtzionatzen dutela egiaztatze aldera, bi urterik behingo bilerak egingo dituzte erakunde kolaboratzaileek, eta KAM (Key Account Manager) izeneko irudia edukiko dute. Horixe izango da erakundeak koordinatzeko arduraduna.

Hitzarmenak egiaztatu egiten du IK4-TEKNIKERek enpresa-eremuarekin duen harremanera hurbiltzeko eta berori sendotzeko konpromisoa duela.

ONA sartu ondoren, hauek dira zentroaren erakunde kolaboratzaileak: Masermic Mechatronics, Goratu, Aernnova, Alfa, Etxe-tar, Fagor, Gamesa, Goizper Group, Ibermática, Kutxabank, Lazpiur, Zigor, Doimak, Egile, Goialde, Jaureguizar, Nivac Ojmar, Pasaban, Zayer, Iline Microsystems, Maier, Ulma Handling Systems eta ONA bera.

#### **IK4-TEKNIKERi buruz**

IK4-TEKNIKERek 30 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuan eta teknologia hori enpresara transferitzen, eta espezializazio-maila handia lortu du lau alor handitan (fabrikazio aurreratua, gainazal-ingeniaritza, produktu-ingeniaritza eta IKTak). Horri esker, gaitasuna du bere abangoardiako teknologia bezeroen beharren zerbitzura jartzeko.

#### **ONA Electroerosión enpresari buruz**

Mundu-mailan, elektrohigadura-makinak fabrikatzen dituen enpresa garrantzitsuenetako bat da ONA. Aitzindariak izanik elektrohigadura-teknologiak garatzeko orduan, eremu horretan dauden irtenbide errentagarrienak, zehatzenak eta ekologikoenak eskaintzen ditu sartze- eta hari-modalitateetan.

**Informazio gehiago**

---

////////////////////////////////////

**IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz**

Itziar.cenoz@tekniker.es | Tel.: 943 256 929

////////////////////////////////////

**GUK | Javier Urtasun**

urtasun@guk.es | Tel.: 637 273 728